

Web duten 10 langile eta gehiagoko enpresen erdietan euskaraz jardun daiteke

Araubide Orokorreko unibertsitatetik kanpoko ikasketetan hiru ikasletik bi D ereduan matrikulatzen dira

Euskaraz ere badiren webak batez ere Gipuzkoako enpresetan (%61,7an batez beste) ditugu; Erkidegoan %50,4tan, Eustaten datuen arabera, beti ere 10 langile eta gehiagoko enpresetan. Debagoienan %77,3, Goierriin %63,8; Urola-kostan %61,6. Gipuzkoako gainerako eskualdeetan %55en gaineratik.

Bizkaian, %46,0 batez beste; Gernika-Bermeon %71,9; Markina-Ondarroan %70,8. Arratia-Nerbioi beste muturrean, %37,2.

Araban %39,1 batez beste; Mendialdean %50,8; Lautadan %40,4. Gainerako eskualdeetan beheraka portzentajea; baxuena Ibarretan, %31,1.

Hiriburuetan Donostia aurren nabarmen euskarazko webetan, 65,3%: Bilbon, 10 langile eta gehiagoko enpresen %48,7tan eta Gasteizen %40,9tan.

10 langile eta gehiagoko enpresen %55,7tan euskarazko weba dago zerbitzuen sektorean; %49,8 eraikuntzan eta %34,45 industrian.

Euskal AEko 10 langile edo gehiagoko establezimenduetako IKT ekipamenduak, hiriburu eta eskualdeen arabera (%). 2017

	Web gunea	
	Badute	Euskaraz (1)
EUSKAL AE	89,1	50,4
Vitoria - Gasteiz	87,6	40,9
Bilbao	89,0	48,7
Donostia - San Sebastian	89,9	65,3
ARABA/ÁLAVA	88,7	39,1
Arabako Ibarrak / Valles Alaveses	96,5	31,1
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	87,8	40,4
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	79,9	50,8
Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa	82,4	32,4
Gorbeia Inguruak / Estribac. del Gorbea	93,9	35,8
Kantauri Arabarra / Cantábrica Alavesa	94,7	35,2
BIZKAIA	89,4	46,0
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	82,3	37,2
Bilbo Handia / Gran Bilbao	89,5	45,0
Durungaldea / Duranguesado	89,9	41,3
Enkartzioak / Encartaciones	86,4	52,4
Gernika-Bermeo	90,1	71,9
Markina-Ondarroa	79,5	70,8
Plentzia-Mungia	91,1	54,0
GIPUZKOA	88,9	61,7
Bidasoa Beherea / Bajo Bidasoa	85,5	55,7
Debabarrena / Bajo Deba	84,5	60,8
Debagoiena / Alto Deba	93,6	77,3
Donostialdea	89,8	60,7
Goierni	88,2	63,8
Tolosaldea / Tolosa	91,1	56,2
Urola-Kostaldea / Urola Costa	85,8	61,6

(1) Web duten establezimenduetatik, euskaraz baduteneen portzentajea

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Hizkuntza ereduak

Araubide Orokorreko unibertsitatetik kanpoko Ikasketetan 384.792 ikasle matrikulatu ziren 2016/2017an Euskal AEn. 246. 533 ikasle (%64) D ereduari; 69. 636 Bn (%18); 66. 562 An (%17,3).

Batxilergoan: 18.798 ikasle D ereduari; 1.242 Bn ; 10.105 An. Bigarren Hezkuntzan: 53.618 ikasle D ereduari; 20.238 Bn; 7.031 An

Haur- eta Lehen hezkuntzan, 2.773 eta 5.605 ikasle A ereduan. Dn, 70.904 eta 94.367; Bn 16.112 eta 28.576.

Atzerritarren %54 D ereduan ari dira Gipuzkoan, %38 Bizkaian, %33 Araban. Euskal AEko batez bestekoa %42, 2015/2016koan.


D ereduaren bilakaera: 2005/06koan 163.054 ikasle; 2010/11koan 205.774. 2015/16koan 243.178.

A eredia: 2005/06koan 99.862 ikasle; 2010/11koan 92.332; 2015/16koan 71.803.

B eredia: 2005/06koan 71.284 ikasle; 2015/16koan 68.457.

Unibertsitatera sartzeko probetan, 2016an A ereduko 3.428 ikaslek gainditu zituzten; D ereduko 7.359k. 2006an: Ako 4.407k eta Bko 4.748k.

Irakaskuntza Orokorreko ikasle atzerritarrak, hizkuntza ereduaren eta lurraldearen arabera. Euskal AE. 2015-16 ikasturtea



Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika 2015-16

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62